

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresan hau muntatzeko zenbait gastu edukiko ditugu. Gastu hauek bi motatakoak izan daitezke:

- **Ordainketa bakarrekoak:** aldi batean ordaintzen direnak. Gure kasuan, behar ditugun tituluak webgune bat edukitzeko, ordenagailuak eta makinariak gure produktu eta webguneak eraikitzeko, patenteak egiteko, behar ditugun lizentziak eta abar.
- **Ordainketa errepikariak:** aldi bat baino gehiagotan ordaindu egin behar ditugun gauzak. Gure enpresan izango dira, hilean dauden gastuak (argi indarra, ura eta gasa), zergak, behar ditugun materialak, pertsonalaren soldatak (kliniketan sartuko direnak gure produktuak eta webgunea aurkezteko), publizitatea eta abar.

Honetaz gain, kontuan hartu behar da ordaintzen ditugun gauza guztiek ez dutela beti prezio berdina izango; horregatik, bi kostu mota daude:

- **Kostu finkoak:** langileen soldata, webgunearen hostinga
- **Kostu aldagarriak:** produktuak ekoizteko materialak, lantegiko elektrizitatea eta ura, hondakinak administratu.

Hala ere, dirua aurreztu dezakegu, eskala-ekonomiari eta hedapen-ekonomiari esker. Eskala-ekonomikoak erabiltzea esan nahi du zenbat eta gehiago ekoiztu orduan eta merkeago dela egiten dugun produktu bakoitza; hedapen-ekonomiak, aldiz, baliabide bakar batekin funtzio asko bete daitezkeela, adibidez, makina bakar batekin funtzio bat baino gehiago egitea.